

## Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko ekainaren 13an aurkeztuko du

## Artea ikasbide

Babeslea:



## *Artea ikasbide* programak 20 urte bete ditu

- Datak: ekainak 13–irailak 17
  - Lekua: Guggenheim Bilbao Museoko hezkuntza gunea
  - Babeslea: BBK
- 
- Sei eta hamabi urte bitarteko 113 ikaslek, EAEko eskoletakoak, Museoko hezkuntza gunean erakusgai dauden artelan berezi hauek sortu zituzten.
  - *Artea ikasbide* egitarauak eskola curriculumeko gaien ikasketa errazten du jolasaren eta artegintzaren bidez.
  - 3.000 eskola-ume inguruk parte hartu dute *Artea ikasbide* programan, 1998an lehen edizioa ospatu zenetik.

Guggenheim Bilbao Museoaren XX. Urteurrenarekin batera, programa arrakastatsu honek 20 urte bete ditu. Urte horietan zehar 6 eta 12 urte arteko haurren, artisten, irakasleen eta Museoko hezitzaileen arteko topaketa emankorrak gertatu dira. Programaren erakusketa, hasieratik BBKren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean antolatu da, eta ekainaren 13an hasita irailaren 17ra arte erakutsiko da aurten, Museoko Hezkuntza-gunean.

“Brotxarekin margotu dudan lehen aldia izan da, kola-barra erabili dut, rodillo bat potean sartu, den-dena dibertigarria izan da. Nik peana bat egin dut eta adar eta makil asko margotu ditut. Museora bueltatu nahi dut berriro.” “Nire izena Gift da eta pantaila bat egin dut, barruan ilargi erdi bat duena. Zergatik ilargi bat? Bada, handitan zientzialaria izango naizelako eta ilargia aztertuko dudalako. Eta zergatik pantaila? Teknologia gustatzen zaidalako. Hondoan morearen nahasketa bat da eta pantaila urdin argia da, eta, ilargia, berdea”. Naturaltasun eta emozio horrekin mintzatu ziren Donostiako Altza eskolako mutiko bat eta Bilboko Tomás Camacho eskolako neskato bat, *Artea ikasbide* programan parte hartu ondoren. Aurten bere hogeigarren edizioa ospatu du programak.

Iñaki Gracenea, Naia del Castillo, Maider López, Manu Muniategiandikoetxea, Jorge Rubio eta Ixone Sábada artistek, Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileekin eta EAEko sei ikastetxetako irakaslerekin elkarlanean, taxutu dituzten artelan hauek sortzeko bidea eman dituzten tailerrak.

“Haur oro da sortzaile, eta proiektu honek jakintza hori sendotzen du. Artista batekin lana partekatzea, artetik lan egitea eta ez ikusle soil gisa, baizik artista gisa jardutea inimizazio-esperientzia bat da haientzat, eta bizitza ulertzeko modu honetan barneratzen laguntzen die. Une horretatik

aurrera artista sentitzen dira, protagonista. Esperientzia hori haien formazioan geratzen da, haien baitan; izan ere, artista batek ez dio sekula artista izateari uzten. Ekintza artistikoan parte hartzen dute. Sentimendu horrek haien bizitza artetik hurbilago ipintzen du, eta hori haien bizitzaren parte da betirako". Hitz horiekin azaltzen zuen Manu Muniategiandikoetxeak *Artea ikasbide* programaren sormen-potentzian duen ustea.

### **Imajinazioz eta abentura zirrargarriz beteriko sei arte-proiektu**

*Artea ikasbide* erakusketako 113 "artistak" Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

Donostiako Mendiola eskolako 3. eta 4. mailako ikasleek dauden lan-eredu desberdinak aztertu dituzte, eta baita kate-lanak ematen dituen aukerak ere. Maider López artista donostiarraren gidaritzapean, eskola-umeek "Giza katea" deituriko proiektu artistikoa sortu zuten, ogibideen ikaskuntzaren eta industriako prozesuen artean dagoen harremanean oinarritua, artearen eta sorkuntzaren harremanarekin batera. Horretarako, aparrezko xaflak ebaki zituzten, kolore desberdinetako frutak egiteko. Gero, elkarren segidan eraman zituzten ikastetxeko mutur batetik bestera, patioa, pasilloak eta eskailerak gurutzatuz, ikasgelara iritsi arte.

Gasteizko Abetxuko Ikastolako 2. mailako eskola-umeek familien aniztasunari buruz, pertsonen arteko harremanei buruz eta auzoetako bizitzari buruz hausnartzeko parada izan zuten. Manu Muniategiandikoetxea artistak adoretuta, etnia anitzez osatutako talde honek "Bizikidetzakaxak" proiektua sortu zuen, bata bestearen gainean jarritako kutxez osatutako eskultura handi bat. Eskulturak hainbat hizkuntzatan idatzitako testuak dauzka bere baitan, aniztasuna, bizikidetzak, familia eta errespetua bezalako gaiak lantzen dituztenak; gainera, jokabide egokien eta ekidin beharreko ekintzen argazkiak ere jasotzen dira.

Bilboko Tomás Camacho eskolako 4. mailako ikasleek norbanakoaren, naturaren eta ingurunearen arteko konexioa aztertu zuten artearen bitartez. Gertuko ingurune naturalari erreparatu zioten, zuhaitzetako hostoei, eta Naia del Castillo artistaren laguntzarekin, kolore desberdinez margotu zituzten hosto horiek. Horiekin, talde-lanari lotutako ideiak adierazten zituzten esaldiak sortu zituzten, "Hosto bakar bat ez da basoa" kasu, proiektu honi izena ematen diona. Beren lana osatzeko, eskola-umeek ikur pertsonalez osatutako abaraska bat sortu zuten beren ikono gogokoenak margotuta: izar bat, ur-tanta bat, lehoi bat, hodei bat, hitz bat edo itsasontzi bat, kasu.

"Proiektu osoan zehar behaketari, kontzeptualizazioari eta esperimentazioari erreparatzen zaio, eta ikasleek, aurrean, espazioaren kontzeptuari lotutako manipulazio-jarduerak deskubritu eta gauzatzeko aukera izan dute, elkarlana sustatzearekin batera. Era berean, urte emankorra izan da oso, ikasleek profesional baten eskutik esperimentatu ahal izan dutelako *Artea ikasbide* bezalako arte-proiektu bat". Tomás Camacho eskolako irakasle batek hitz horiekin jartzen zuen balioan programan izandako esperientzia.

Basauriko Soloarte eskolako 5 eta 6. mailako eskola-umeek pertsonen arteko berdintasun eta ezberdintasunak hauteman eta balioesten ikasi zuten, beren gorputz eta aurpegi propioei

erreparatuta. Bi eta hiru dimentsiotako autorretratuak sortu zituzten teknika desberdinak erabilia; positiboak moldeetatik nola atera ikasi zuten, bai eta beren obrak aberasteko objektuak nola erantsi ere, batzuetan objektu birziklatuak erabiliz. Ixone Sábada izan zuten bidelagun "Moldeak, gorputzak eta maskarak" lan honetan, eta, norbere erantzunak aurkitzeak dakarren plazera ezagutu zuten, bai eta bakarrak eta errepikaezinak diren objektuak sortzeak dakarrena ere.

Barakaldoko Larrea eskolako 1. mailako neska-mutikoak argazkigintza-teknikekin jolastu ziren, beren identitate propioez hausnartzeko helburuarekin. Museora bisita egin zuten ikasleek, eta Francis Bacon artistaren erretratu lausoetan jarri zuten arreta batez ere. Inspirazio-iturri horretatik abiatuta, *selfie*ak eginez eta manipulatuaz dibertitu ziren, erretratuaren eta autorretratuaren beren bertsio propioak sortzeko. Jorge Rubiok modu honetan azaldu zuen txikienekin egindako lana: "Beren adin goiztiarra gorabehera, ikasle hauek oso gertu daude argazkiaren irudikapen eta hartzearen mundu honetatik... gezurra esan diogu kamerari, erretratuari ziria sartu diogu, tranpak erabili ditugu kopiaitzeko, kalkatu egin dugu, buztina kolpatu dugu eta papera zigortu dugu, gaiztoak izan gara, marrakzi eskasak egin ditugu, zirriborroak, marjinetatik atera gara, azalera asko zikindu eta lohitu dugu, eta geure buruak ere zikindu ditugu, ezkutatu eta mugitu egin gara argazkia ateratzeko deitzen gintuztenean..."

Donostiako Altza eskolako 2. mailako ikasleek historiaurrera bidaiatu ahal izan zuten Iñaki Gracenea artistak lagunduta, "Gure gela kobazulo bat da" proiektua martxan jartzeko. Irudi eskematikoak sortzen ikasi zuten, silueta edo ingeradak marraztuz, gure historiaurreko arbasoen estilora. Egurrezko animalien eskulturak sortu zituzten forma geometriko sinpleekin eta naturak emandako koloreekin, eta, horiekin denekin ikasgela historiaurreko kobazulo bilakatu zuten.

### **Bilbao-New York elkartrukea**

Bilboko Tomás Camacho eskolako gela bat eta New Yorkeko Manhattaneko PS 38 eskolako beste gela bat sei astez egon dira harremanetan mezu elektronikoz bidez, Naia del Castillo eta Jeff Hopkins artisten laguntzarekin. Harreman horretan beren arte-proiektuen inguruko informazioa partekatu dute beren sorkuntzen testu, irudi, marrazki eta argazkien bitartez.

1999az geroztik, *Artea ikasbide* programak, kultura-elkartrukea garatzeko aukera eman die parte hartu duten eskola-ume, artista eta irakasleei, Euskal Autonomia Erkidegoko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean ematen den arte-hezkuntzaren bitartez. Elkartruke horrek artearen eremua bera gainditzen du, eskola-umeei kezka, gustuak eta jolasak ere partekatzen dituztelako, inguruko errealitateko beste aspektu batzuekin batera. Talde bakoitzak jakin-min bizia sentitu zuen beste taldearen inguruko ezaugarri bereizgarriak ezagutzeko, eta bi hirietako Guggenheim Museoak alderatzeko.

### **Hogei urtez *Artea ikasbide***

Guggenheim Bilbao Museoaren XX. Urteurrenean, *Artea ikasbide* programak ere 20 urte bete ditu. Urte horietan zehar, programak lehen mailako irakaskuntzako 3.000 eskola-ume ingururen eskola-

curriculum indartzen lagundu du arte-jardueren bitartez, eta, aldi berean, haur horiei munduari begiratzeko sormenezko ikuskera pertsonala transmititu die, talde-lana, beste kultura batzuekiko bizikidetzak edo ingurunearekiko errespetua bezalako balioak landuz.

1998tik, 2.871 ikasleek, 28 artistak, Lehen Mailako Hezkuntzako hiru hizkuntza-ereduen 214 irakasleek eta Euskal Autonomia Erkidego osoko 139 ikastetxeek saiamenez lagundu diete Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileei *Artea ikasbide* programa gauzatzeko.

la hogeita hiru urte igaro dira egitaraua Guggenheim Bilbao Museoan abian jarri zenetik, eta, oraindik ere, argi geratzen da arteak eskola curriculum sendotzen laguntzen duela. Heziketa-programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan eratu zen. 1970. urtean, Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen martxan, hiriko lehen mailako ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntza kendu baitzuten.

**Museoko entzuteko gidak**, bigarren urtez, egitarauaren informazio orokorra eta *Artea ikasbide* erakusketako artelan batzuen azalpenak eskainiko ditu, beste erakusketetan egiten den bezala.

#### **Azaleko irudia**

Donostiako Altza eskolako ikasleek egindako lana.

#### **Argibideetarako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) webgunean eskuragarri (prentsa eremua).

Prentsa irudiak:  
***Artea Ikasbide***  
 Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

Gasteizko ABETXUKO IKASTOLAKo ikasleak.  
 Irakaslea: Josu Manterola.  
 Artista: Manu Muniategi



Barakaldoko LARREA Ikastetxeko ikasleak.  
 Irakaslea: Ainhoa Erasti.  
 Artista: Jorge Rubio



Basauriko SOLOARTE Ikastetxeko ikasleak.  
 Irakaslea: Lidia Salazar.  
 Artista: Ixone Sabada



Bilboko TOMÁS CAMACHO Ikastetxeko ikasleak.  
 Irakaslea: Andoni Bengoa.  
 Artista: Naia del Castillo



Donostiko MENDIOLA Ikastetxeko ikasleak.  
 Irakaslea: Carmen Movilla.  
 Artista: Maider López



Donositko ALTZA-S.J.C. Ikastetxeko ikasleak.  
 Irakasleak: M. Karmen Erauskin y M. Elena Sagarna.  
 Artista: Iñaki Gracenea

